

Mokadua konpartitzen

XX. mende hasierako abangoardiek tradizioetik aldentzen ziren arte jarrera ezberdinak proposatu bazituen ere, ez zuten astirik izan sakontzeko. Mende beraren 60ko hamarkadatik aurrerako artistek abangoardien lekukoa hartu eta artearen aukera esperimentalak aztertzen ibili ziren ingurukoen harridurarako. Ekimen berritzaileen artean, esperientziaren bidezko artea egongo litzateke, hau da, artea emaitza izan beharrean edo lan batetik irtendako objektua izan beharrean, bitartekoari garrantzia eman zioten 60ko hamarkadako artista batzuek. Artea ez da, gertatzen da, izan zen artista askoren leloa. Beste batzuek naturarekin bat egin nahi zuten eta horretarako ibilbidearen metodo klasikoa berreskuratu zuten ingurugiroaren ezagupenean sakontzeko eta, batez ere hiritarra izan zen modernitatea naturaren irakaspenekin orekatzeko. Azken horri guztiari *Land art* deitu izan zitzaion, nahiz eta artista bezainbeste joera eta jarrera egon. Artea naturan integratzea, naturarekin bat egitea edo artelanak erakusketa aretotik naturara ateratzea izan zen artista haien asmoetako bat. Horretarako, ibilbideak egitea, hau da, naturarekin esperientzia zuzena izatea, gehien erabilitako ariketa izan zen. Gainera, *Land art*-ak garai hartan pizten ari zen kontzientzia ekologistarekin bat egin zuen.

Ekologismoak indar handia izan zuen Euskal Herrian 70eko hamarkadan, batez ere, zentral nuklearren kontrako mugimenduari lotuta, Chillidaren logo antinuklearra eta Ameztuaren poxpolinak Lemoizen aurrean eta azpiegitura lan handien kontra hartutako jarrerak, ondo erakusten dute artearen munduan ere mugimendu ekologistak izandako eragina; azken 20 urteetan zementuaren politikak ia erabateko onarpena izan duen arren. Hala ere, eta harrigarria bada ere, *Land art* delakoak erabilitako prozedurak gutxitan erabili izan dira Euskal Herriko artean, nahiz eta gure artean baldintza aproposak egon diren. Alde batetik, mendizaletasuna inon baino indartsuago izan dela iruditzen zait. Gure mendiak ekipamendu ezin egokiagoz jantzitako jendez gainezka topatzen ditugu. Bestalde, azken urteetan klima larrialdiaren harira kontzientzia ekologikoa berpiztu egin da, nahiz eta azpiegitura handien kontrako jarrerak ez diren oso jendetsuak izan. Azkenik, 70eko hamarkadatik zetorren konprometitutako artearen txingarrak oraindik zeharo itzali gabe zeudela esan daiteke.

Badirudi osagai horiek guztiak Zigor Garciaren lanean elkartu direla. Kezka ekologiko batetik sortutako jakinminak bultzatu du artista arriskuan zegoen tokia ezagutzera. Jaizkibel mendi magalean eraiki nahi zuten portuaren proiektu **basati eta burugabeak**, ekosistema berezia eta ez oso ezaguna desagertzeko zorian utzi baino lehen, bertara hurbiltzea erabaki zuen bere burua artistatzat ez zuen pasaitarrak. Baina, bere buruan sumatzen zituen kezka eta ezinegon berri horien adierazpenerako artea tresna aproposa izan zitekeela erabaki zuen, hainbeste urtetan arte garaikidearen munduari mesfidati begiratu zion Arte Ederrak konbentzimendu handirik gabe ikasitako gazte ez hain gazteak.

Horrela bada, naturaren esperientzia zuzena ibilbideen bitartez bereganatu zuen. Artea ekintza izateaz gain, bizitzea ere bada. Begiratzeaz aparte, natura zapaldu, zeharkatu, usaindu, dastatu, ukitu, izerditu, busti eta hausnartu egin behar da. Arte tradizionalak errealitatearen interpretazio bisuala nagusitzen bazuen ere, XX. mendeak ezagupenerako bestelako aukerak proposatu zituen, eta Zigor Garciak horietaz baliatu da. Gaztarrotz, Erentzin, Turruya, Gran Canto, eta abar Jaizkibelgo tokiak dira, jende askok zeharkatuko zituen seguru asko, baina Zigorrek zerbait gehiago eskatzen zion tokiari eta bereganatzeko ariketa multzo ederra eskaini dizkigu erakusketan: frotagen bidez itsasoko haizeak hare-harrian sortutako zuloen laztasuna erregistratu du, esmalte koloretsuen bidez haitzetako urez betetako putzuen unibertsoa ekarri digu erakusketa aretora, lagin topografikoen edo geologikoen antza duten lurrezko koloretako zilindrotan milaka urtetan gainjarritako hareak sortu dituen paisaia harrigarriak gogora ekarri dizkigu, gaur egun ezagutzen ez ditugun animalitxoek harrietan utzitako aztarnak akordarazten dizkigu lurrean sakabanatutako ontzi borobiletan, ibilbidearen gorabeherak irudikatu ditu zeramika plaketan edo buru formako ontzietan, artistak egindako ibilbidearen mapa osatzeko.

Hain zuzen, zeramika, ibilbideetan bizi izandako esperientzia harrapatzeko baliabide egokia dela uste du egileak. Zeramikaren teknika ondo ezagutzen duen pertsona da Zigor, baina ezagupen tekniko horri bizitza eman dio toki batera behin eta berriz egindako bisitak. Ibilbidearen luzapena da zeramikaren lana. Zeramikaren osagaia lurra denez, zer egokiagoa paisaiari buruz hitz egiteko? Gainera, eskuak garrantzi handia duen teknika izanda, ezin egokia da ikusi duena ulertzeko. Egitea -sarritan kontzeptuan oinarritutako arteak baztertu izan duena- hausnartzeko modua izan daiteke ezagupenerako bidean. Errealitatea formaz (eta ez bakarrik irudiz) osatuta dagoenez, sortzaileak formak sortzen ditu paisaian jasotako esperientzia berrosatzeko, berreraikitzeke,

irudikatzeko. Tornuaren gainean jarritako buztin pusketak ez du forma hartzen eskuak gainean jarri arte. Esku trebetasunak eta bueltak ematen duen gurpilak ezer ez zen buztin multzoa forma bihurtzeko gai dira. Orain dela mila milioi urtetako prozesu geologikoetan gertatu zenaren antzera, labeko suak lurra harri bihurtuko du eta etenik ez duen eboluzioaren hasiera izango da paisaiarentzat; gero etorriko dira ura eta haizea forma ematera. Eskuen eta suaren ariketa horiek ulertarazten digute gure ibilbideetan jaso dugun informazioa, bizi izandakoaren hiru dimentsiozko esperientzia; une horretan artistak inguruan duen eta ia ikusi besterik egiten ez duen tokia ulertzen du, natura bereganatzeko gai da. Horrek izugarrizko abantaila emango dio inguruari buruz iritzia izateko eta mehatxu diren proiektu arrotzei aurre egiteko, eta, aldi berean, guri ondo baino hobeto transmititzeko nolakoa den bizi izan duen esperientzia, eta zergatik den hain inportantea toki horiek ahalik eta ondoen gordetzea.

Eraldaketa prozesuak buztina zeramika bilakatu duen antzera -material hutsa artelan, alegia- artistak tokiaren bizipena sumatuko du, eta artistak prozesuan bizi izan duen eraldaketa erakusketa aretora eraman duenean, ikusleari bere esperientzia eskaini baino gehiago naturaren edo tokiaren esperientzia transmitituko dio elkarren artean banatzeko, txangoetan bakoitzak eramandako jatekoa konpartitzen den modura.

Ismael Manterola Ispizua